


# Aretxagazeta

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 07 - 2 EZK  
ARETXABAETA

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaeta • 1999ko apirilak 29 • 166. zka.



## Juan Arregi atxabaltarra

Enpresaria, ehiztaria, futbolzalea



*Esiko Sport:  
gaurkotasuna,  
dinamismoa,  
kolorea...*

**Zatoz Esko sportera!**



**Kirola eta sport moda**  
gogoko badituzu



**Esko Sport**

Intxaurtxueta, 5  
ESKORIATZA  
943 71 52 96



*Irudimenarekin, eskulanak egiteko  
kutxak, kajonerak, bandejak,  
pertxeroak, komuneko altzariak...  
margotu ditzakezu. Eta nahiago izanez  
gero, geuk margotuko dizkizugu.*

**AZKARATE**  
**ARozTEGIA**

ARETXABALETA 943 77 01 24  
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak*

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



# Zer iruditzen zaizu 35 orduko lan astea?

## Esther Eraña

(Langilea)

Ondo iruditzen zait. Langa-betu asko daude eta langileen orduak murriztuz gero lan gehiago hautzat. Soldata ere txikiagoa izan beharko litzateke noski, horrela denok kobratu ahal izango genuke.



## Roberto Peña

(Langilea)


Oso ondo iruditzen zait, horrela jende gehiagok izango lukelako lan egiteko posibilitatea. Soldata, ordea, berdina izan beharko litzateke edo bestela portzentai txiki bat ken dezatela.



## Gabino Errasti

(Jubilatua)

Ondo. Ni jubilatuta nago baina gazteei ondo etorriko zaie lana aurki dezaten. Soldata, berriz, berdina edo haundiagoa izan beharko litzateke gastuak beti gora doazelako.



## Nekane Quintas

(Langilea)

Ez dakit, baina denok lan egiteko posibilitatea izateko ondo dagoela uste dut. Kasu horretan soldata txikiagoa izan beharko da noski, denentzat heldu ahal izateko.



## eskutitza



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

## Jendea erakartzeko Saretxoko eskutitza

Gero eta jende gehiagok galdetzen digu zeintzuk diren Saretxoko iharduerak. Momentu honetan 350 Mhz-ko 7 Pentium II, 200 Mhz-ko Pentium 200 zerbitzari bat eta 486 ordenagailu bat daukagu; azken hau, ordenagailu indartsuago baten ordezkari gisa espero dugu. Ordenagailu bakoitzak bere Cd-roma du. Hauetako bat Cd-rom DVDa da (formatu honetako filmak pantailan ikusteko aukera duena) eta beste bat Cd-rom grabatzailea (musika zein datuen Cd-romen grabaketa egiteko aukera ematen duena). Eskanerra ere badugu (laster, diapositibak eskaneatu ahal izateko aparailu bat jarriko diogu) eta eta bi inprimagailu, bata koloretakoa eta bestea laserra, 600 puntu/hazbete eta 12 orri/minutu ezaugarriak dituena. Azkenik, RDSIren bitartez Internetera lotuta

gaude (telefono normala baino azkarragoa). Urteko (5.000 pta./urtean) edo hileko (1.000 pta./hilean) kuota ordainduz gero, aktibitate hauek guztiak, doan dira bazkideentzat.

Astelehen, ostegun eta ostiraletan egoten bagara ere (arratsaldeko 7etatik 9etara), edozein egunetan joan daiteke bertara Aretxagazeta eta Loramendin giltzak baitituzte. Gurekin harremanetan jartzeko 943 71 26 56 telefono zenbakira dei egin dezakezue (erantzun-gailu automatikoa dago) edo bestela gure txokotik pasa. Aste pare bat barru gure aurkezpen ofiziala egin nahi dugu eta jendeak interesa izanez gero, oinarritzko ikastaro bat emateko gertu gaude (Windows 98 esaterako).

Saretxo Kultur Elkarte

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroia, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Bereziar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta

# 1999ko aurrekontuak onartu dira

**Legealdi honetako azkenengo aurrekontuek alderdi guztien oniritzia jaso zuten**

Beste herri batzuetan aspaldi onartu baziren ere, 1999rako aurrekontuei, Aretxabaletan, apirilaren 19an egindako osoko bilkuran eman zieten alderdi guztiek baietza. Aurrekontuez gain beste bi puntu ere izan ziren aztergai.

1. 1998ko aurrekontuen likida-

zioa onartzea. Martxoaren 29an egindako Gobernu Batzordean Udaletxeko eta Urats-Gain zaharren egoitzako aurrekontuen likidazioa egitea erabaki eta osoko bilkura honetan onartu egin zen.

2.- 1999rako aurrekontuak onartu ziren, guztira 952.709.985 pta.-

koa izanik. Zaharren egoitzakoa, berriz, 60.472.877 pta.koa da. Lanpostuen zerrenda eta udaletxeko plantilaren onarpena ere egin zen.

3.- Aretxabaletako Udalaren ordezkaria izendatu zen Jakion S.A. enpresako bileretan parte hartzeko, Jesus Kortabarria izango da.

## UDALETXEKO AURREKONTUA:

### SARRERAK

- Zuzeneko zergak	123.977.255
- Zeharkako zergak	25.000.000
- Tasak eta bestelako zergak	162.077.293
- Transferentzia arruntak	377.197.955
- Ondare-sarrerak	6.500.000
- Inbertsio errealeen besterenganaketa	11.310.000
- Kapital transferentziak	4.711.913
- Finantza aktiboak	99.195.000
- Finantza pasiboak	142.740.569
<b>Guztira</b>	<b>952.709.985</b>

### IRTEERAK

- Pertsonal gastuak	132.406.503
- Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	266.530.093
- Finantza gastuak	13.330.138
- Transferentzia arruntak	129.200.967
- Inbertsio errealak	221.740.424
- Kapital transferentziak	143.000.166
- Finantza aktiboak	500.000
- Finantza pasiboak	46.001.694
<b>Guztira</b>	<b>952.709.985</b>

## URATS-GAIN ZAHARREN EGOITZAKO AURREKONTUA:

### SARRERAK

- Tasak eta bestelako zergak	19.700.000
- Transferentzia arruntak	38.123.877
- Ondare-sarrerak	20.000
- Kapital transferentziak	2.629.000
<b>Guztira</b>	<b>60.472.877</b>

### IRTEERAK

- Pertsonal gastuak	24.842.877
- Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	33.000.000
- Finantza gastuak	1.000
- Inbertsio errealak	2.629.000
<b>Guztira</b>	<b>60.472.877</b>

## Udaletxeko gastuen programa:

- Zor publikoa	59.331.832
- Gobernu organoak	19.784.580
- Administrazio orokorra	78.698.034
- Hiritarren segurtasuna eta trafikoa	17.721.806
- Urats-Gain zaharren egoitza	36.571.976
- Drogodependentziak	5.628.946
- Basoto	1.580.000
- Ongizate zerbitzu orokorrak	39.088.566
- Garapen ekonomikoa	120.119.339
- Hezkuntza	36.826.716
- Kaleen mantenimendua	7.750.000
- Herriko argi sarea	15.600.000
- Parkeak, lorategiak eta hiriko altzariak	16.350.000
- Eraikin publikoen mantenimendua	31.320.098
- Zerbitzuak	4.325.000
- Ur hornikuntza eta saneamendua	65.523.060
- Kale garbiketa eta zabor bilketa	41.486.695
- Hilerriak	4.259.037
- Ingurugiroa	2.050.000
- Kontsumoa	1.880.000
- Kultur-Etxea	2.650.000
- Liburutegia	8.705.304
- Musika eskola	4.017.566
- Kultura-Zerbitzu orokorrak	16.711.974
- Kiroletxea	30.747.591
- Zaratza zinema	2.995.000
- Frontoiak eta jolaserako zelaiak	5.780.000
- Futbol zelaiak	2.740.000
- Jaiak	16.745.000
- Kirolak-Aisialdia-Zerbitzu orokorrak	12.485.190
- Ondare historikoa	27.101.000
- Euskara	23.148.663
- Azpiegitura sortu eta hiriztatzea	189.902.420
- Nekazaritza garapena	3.084.592
<b>Guztira</b>	<b>952.709.985</b>

**IRIARTE**

**Umeen  
denda**



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56



**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

**Zuzendaria:**

**Lyonel  
Arquero**

**Dekorazioa:**

**Soraya  
Arquero**

# Aretxabaletako EPEH plataformaren aurkezpen ofiziala

Jadanik herriko 33 talderen babesu jaso du plataformak eta zerrenda zabalik dago

Pasa den apirilaren 20-an Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak bere aurkezpena egin zuen bailarako prentsaren aurrean. Ekitaldi honetan, hasiera batean ideia bultzatu zuten EAJ, EA, Ezker Batua, HB, Senideak eta Amnistiaren Aldeko Komiteak gain, plataforma hau babesten duten herriko 33 talde ezberdinetako ordezkari ugari egon ziren. Herrian, presoeng inguruko gaiekin lanean dabiltzan eta oraindik zerrendan ez dauden taldeak, plataformara hurbiltzera gonbidatu zituzten.

## Helburua eta ekintzak

Aretxabaletako plataformaren helburua herritarren sentsibilizazioa eta atxikimendua lortzea da, presio soziala egiteko asmoz. Espainiako eta Frantziako kartzeletako legediak betetzea exigitu nahi zaie bi estatu hauen instituzio politiko, juridiko eta espetxe instituzioei. Beraz, Euskal Presoen egungo egoera salatu eta lehenbailehen aldatzearen alde lan egin nahi da.

Helburu hau lortzeko, ekintza ezberdinak antolatzeko asmoa azaldu zen: prentsaurrekoak, manifestazioak, hitzaldiak, mahainguruak, jaialdiak... Herritar guztientzako irekiak izango dira ekitaldiok eta gainera, denon partaidetza eskatu zuten. Ekitaldi hauek aurrera eramateko pla-



Plataforma bultzatzen duten herriko hainbat taldetako ordezkariak

taformako kide diren taldeei, borondatezko ekarpenak egitea eskatuko zaie, horretarako Euskadiko Kutxan zabaldu den kontu korrontean dirua sartuz. Hona zenbakia: 0020031644

## Kepa Urraren noraezaz kezkatuak

Momentu honetan Kepa Urrea atxabaltar presoaren egoeraz kezkatuta azaldu ziren prentsaurreko

### Plataforman sartutako taldeak:

- Amnistiaren Aldeko Batzordea • Akordeoi Orkestra • Aratz • Aretxabaletako Abesbatza • Aretxabaletako Komunikabideak-L • Arlutz Xake Taldea • Baietz Fundazioko Komitea • Batzoki Elkarte • ELA • EA • EAJ • Ezker Batua • Eguzki Alde Elkarte • Elkarri • HB • Hiruatx • Jarrai • Leizarra Musika Eskola • Loramendi Dantza Taldea • Loramendi Euskara Elkarte • Murruxiko Mendizale Elkarte • Okila Egurra Lantzen Elkarte • Ortzadar • Pagle • Parrokiako Pastoral Kontseilua • San Kristobal Elkarte • Saretxo • Senideak • UDA • Udaletxea • Uratz Alde Elkarte • Urbaltz Elkarte • Zairaia Mendizale Elkarte •

emaileak. Kepa, Langraitzetik Madrilgo Valdemorokartzelara eraman zuten pasa den apirilaren 7an, epaiketa batean testifikatzeko aitzakiaz. Ondoren, berriz Langraitzera ekarriko duten ala ez inork ez dakienez, Ruth Alonso "Juez de Vigilancia Penitenciaria"ri eskutitz bat bidali diote, Arabako kartzelara ekarria izan dadin eskatuz. Hori gertatu ezean plataformakoak gertu daude Bilbora, aipatutako epaile honen bulego aurrera, protestaldi bat egitera joateko.

## EPEH zapiak balkoietan

Orain hilabete batzuk, Euskal Presoak Euskal Herrira zapiak jarri ziren salgai; baita denak saldu ere. Plataformakoen esanetan, ordea, oso gutxi ikusten dira balkoi eta leihoetan eta zapi hauen helburua presoen egoera salatzea da. Beraz, jendea, etxeko balkoi eta leihoetan jartera animatu nahi izan zuten, udaletxeko balkoian dagoen bezala, eta bide batez zapi gehiago salgai daudela adierazi. Zapi hauek, Jauregi okindegian, Ibarra estankuan eta Urbaltz tabernan eros daitezke.

Edozein herritar edo taldek zerbait esan nahi edo ideien baten berri eman nahi izanez gero, plataformakoek, Aretxabaletako 115 postakutxatila zabaldu dute, iradokizun guztiak bertara bidali ahal izateko.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## Literatur Astea Kurtzebarri eskolan



Txotxongiloa emanaldia izan zen txikientzat

Pasa den apirilaren 23an liburu eguna ospatu zen. Hori dela eta, Kurtzebarri eskolan, Literatur Astea egin ari dira 23tik 30 arte, irakurtzeko zaletasuna eta literatur genero desberdinetako sentikortasuna garatzeko

helburuarekin. Horretarako hainbat idazle, ilustratzaile eta ipuin kontalariren laguntza izango dute (Enkarni Genua, Kukubiltxo, Iñaki Garmendia...).

Ostegun honetan, berriz, apirilak 29, VIII. Irakur Maratoia ospatuko da. Ikasleen gurasoak ekintza honetan parte hartzera gonbidatu

dituzte baita herriko irakurzaletz guztiak ere. Eskolako aretoan izango da eta liburutegiko liburuak eta ikasleek egindako lanak era atsegina batean aurkeztuko dira.

## Zentsua ikusgai udaletxean

Hurrengo ekainaren 13an ospatuko diren udal hauteskundeak direla eta, udaletxean zentsua ikusgai egongo da apirilaren 26tik maiatzaren 3ra bitartean. Honen helburua, zerrendan agertzen diren datuak, izen-abizenak, helbidea... ondo dauden frogatzea da, ekainaren 13an botua ematera joatean inork ez dezan ezustekorik har.

## Odol emate kanpaina

Apiril honetan, Arabako Odol Emaleen Elkarteak Aretxabaletan egindako kanpainaren ostean, ezagutzen dira bertan jasotako emaitzak. Apirilaren 6an 21 odol emate izan ziren, hauetatik 3 berriak. 13an 46 odol emate, hauetatik bi emale berriak, eta azkenik, 20an, 36 odol emate egon ziren, hauetatik 2 berriak. Beraz, aurtengo udaberrian, guztira 103 lagun hurbildu zen odola ematera.

Isabel Vitoria, Osakidetzako transfusio eta hemoderibatuen zentruko arduradunaren esanetan, odola eman duen lagunen kopurua ona izan da, baina jende gazte gutxi animatzen omen da oraindik. "Odola emateko, norberaren bizitzako bost minutu besterik ez dira hartu behar eta odol horren beharrean dagoen jende askoren bizitza salba daiteke" dio Isabellek jende gaztea animatu nahian.

## Kurtzebarri eskolatik Sheffield-era



Pasa den puzko astean, Kurtzebarri eskolako 11 ikasle eta 2 irakasle, Ingalaterrako Sheffield hirian izan ziren, Full Monty egin zen hirian hain zuzen. Astebeteko egonaldi honen helburua, ingelesa praktikatzeko gain, ikasleei, beraiek dakitenaz atzerrian bakarrik molda-

tzeko gai direla erakustea izan zen. Oihana Aranzabal irakaslearen esanetan, familia jatorrak tokatu zitzaizkien eta oso ondo pasatu zuten denek. Esperientzia positibo honen ostean, 11-16 urte bitarteko ikasle hauetako batzuk, udan berriz bueltatzeko asmotan daude.



*Lubia*

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

ARETXABALETA

ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

## Alemaniarrak Almeneko ikasleekin

Harrituta geratu dira tabernetan beranduarde ibiltzen delako jendea

Orain hilabete inguru, 4. DBH eta 1. GBko alemaneko Almeneko ikasleak, Alemanian izan ziren eta orain, hangoei tokatu zaie etortzea. Apirilaren 16an heldu ziren Alemania hegoaldeko Nurenberg hiritik eta zortzi egunetan, Euskal Herriko hainbat txoko ezagutu ostean, berriz bueltan dira.

### Gaztelera ikastera

15-16 urte bitarteko 25 ikasle eta 2 irakasle hauek, gaztelera ikastera etorri ziren. Haien irakas-kuntz sistema erabat ezberdina da eta hizkuntzak ikastera bideratua dago. Gaztelera 4. hizkuntza dute alemana, ingelesa eta frantsesaren ostean eta horixe hobetzeraz etorri ziren hain zuzen ere. Hizkuntzen-ganako duten zaletasun horrek, euskaraz hitz batzuk ikastera bultzatu zituzten eta egia esan ez zu-

ten batere gaizki egiten.

Nahiz eta haien lurraldearekin zerikusirik ez izan, oso gustora egon omen dira gure artean. Almen ikastola, naturaz inguratutako zonaldean egoteak, harrituta utzi zituzten, baita jendea hain zabala izateak ere. Harridurarik haundiena, ordea, tabernetako ordutegi-ekin izan zuten, han ez baitago hain beranduarde tabernetan ibiltzeko ohiturarik.

### Esperientzia positiboa

Esperientzia hau, Almenen, iaz eramán zuten aurrera lehenengo aldiz eta lortutako emaitza ikusirik, aurrerantzean ere, jarraitzeko asmoa agertarazi dute irakasleek. Bai iaz, bai aurten, oso ondo ateratu omen da dena eta ikasleak motibatzeko bide on bat dela ikusirik, datorren urtean ere izango da zerbait.



Giro ona izan zen nagusi, bai han eta bai hemen, taldekideen artean

## Liburutegiko postua

Aretxabaletako Udalak, liburutegiko laguntzaile postua kaleratu zuen orain hilabete batzuk. Bere asmoa, behin behineko lanpostu izatetik funtzionari lanpostura pasatzea zen. Hasiera batean izena 43 lagunek eman bazuten ere, azkenengo frogarako, 8 besterik ez ziren geratu. Lau azterketa gainditu behar izan zituzten hauek. Azterketa guzti hauen ostean, puntuaketa haundiena lortu zuena, Joseba Lopez de Armentia atxabaltarra izan da, lehen ere postu honetan zegoena. Momentuz, behin behineko izendapena da, hurrengo osoko bilkuran zinegotziek baietza eman arte.

### Sei kilotik gorako bildotsa



Parrokiako Misio Taldeak antolatutako zozketan irabazle gertatu zen Pakita Iturbek, alaba bidali zuen bildotsa jasotzera. Aste bukaeran jan omen zuten sei kilotik gora pisatzen zuen animalia.

## ARETXAGAZETAN LAN EGITEKO EGUN OSOKO LANGILEA BEHAR DA AMATASUN BAJA BETETZEKO.

**Baloratuko da:** Euskara maila, informatika erabiltze mailan ezagutzea, Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea.

Curriculumak maiatzaren 5a baino lehen Aretxagazetara ekarri (Durana 11-2. solairua) edo 151 postakutxatilara bidali.

# Maiatzak 1: 35 orduko lan astearen eskean

## Euskal sindikatuek bateratuta ospatuko dute langileen eguna Iruñean

Aurtengo maiatzaren lean, herrietan manifestazioak egin beharrean, bateratuta ospatuko dute euskal sindikatuek Iruñean. Maiatzaren 21ean egin nahi den grebari begira, euskal sindikatu eta langileen bateratasunaren erakusle izan nahi du langileen egun honek.

katutako 35 orduko lan astearen aldarrikapenari, ordea, muzin egin zion Konfebask-ek eta horixe izango da bai maiatzaren lean, bai 21ean eskatuko dena.

tako eguna antolatu dute euskal sindikatuek Iruñean. Eguerdiko 12etan, manifestazioa egingo da. Europako hainbat herrialdetako sindikatuetakoa partaideak ere bertan izango dira belgikarrak, portugesak, irlandarrak, saharauiak... besteak beste. Ondoren, ordu 2,30etan, bazkaria egingo da eta bazkal ostean, hemengo sindikatuetakoa ordezkariak parte hartuko duten ekitaldia izango da. Azkenik, arratsaldeko 6ak inguruan dantzaldia, Gozategi taldeak bukaera emango dio egunari.

### Manifestazioa Iruñean

Ekintza eta ekitaldi ugariz bete-

Iruñeara joan ahal izateko, sindikatu bakoitzak bere autobusak antolatuko ditu beraz, interesatuek, lehenbailehen eman dezatela izena ohiko lekuetan.

### 35 orduko aldarrikapena

Urtarrilean, Konfebask eta sindikatuak akordio partzial batera heldu ziren CRL-n, lan harremanetarako zentruan. Adostasuna, ordu extrak dirutan ez ordaintzean, 60-65 urteko langileak jubilatuta eta hauen ordezkariak berriak mugagabeko kontratuaz hartzean eta prekarietatearen aurka lan egitean, lortu zen. Sindikatuek es-



Maiatzaren 1a oso data ezanguratsua da langileentzat

## ATZEGIren kanpaina zabalik

ATZEGIk aurtengo kanpaina erabiliko duen esaldia

Adimen urritasuna duten pertsona berberak dira, gure ez-jakintasunetik ateratzea aldarrikatzen digutenak. Ez ditugu beraien sentimendu, afektu, haserre eta eskakizunek zer adierazi nahi duten ezagutzen eta gure ez ikusi nahia, beraien desberdintasun bereziaren bitartez justifikatzen dugu.

Hala ere, arlo hauetan zaila da aurkitzea, zer den desberdintzen gaituena. Adimen urritasuna duen pertsonaren beharrak gureak bezalakoak dira, nahiz eta erabiltzen dituzten estrategiak desberdinak izan, beraiek berezotasunari erantzuten diotelako ondorioen hausnarketarik

egin gabe, eta guk, berriz, hau kontuan izaten dugu konpentsatzen gaituen ala ez jakiteko.

Pertsona hauek, sentitzen dute, gure lagunkidetasun eta ulermen eza somatzen dute eta sufritu egiten dute beharrezkoa dutelako edozein pertsonak bezala, gizartean leku bat izan dezaten, ulertuak sentitu eta diren bezala onartuak izan daitezten.

Lastima da, pertsona hauen aberastasun pertsonala galtzea, ez garelako saiatzen guretzat ezezagunak diren arloetara gerturatzeko eta dena beraien zailtasunetan justifikatzen dugulako, erreparatu gabe guk ere zailtasunak ditugula... Noiz arte!

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

OSKAR  
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

Izozkiteki-Gozotegia

IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABALETA

**ANDRA  
MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26



# Mireia Uribetxebarria

## CIMeko irakaslea

**CIM hizkuntza akademiak 25 urte betetzen ditu aurten. Urte guzti hauetan, bertatik, herriko hainbat gazte eta ez hain gazte pasatu dira hizkuntza bat edo beste ikasteko.**

**Mireia Uribetxebarria, 1990an sartu zen CIMen irakasle lanak betetzeko eta geroztik, bertan ari da ingelesa erakusten.**



**- Zein da zure lana CIMen?**

- Ingeleseko klaseak ematen ditut bai helduen artean, bai gazteen artean. Udan, berriz, udalekuak antolatzen dira aktibitate ezberdinak egin daitezen ingelesa erabiliz. Udaleku hauek Ingalaterran, Irlandan, EEBB-etan, Canadian edo hemen Euskal Herrian egiten dira, Seguran eta Mendigorrian esaterako, eta bertan izaten naiz lanean.

**- CIMen sorreran egon ez bazin ere nola ikusi duzu eboluzio-natzen?**

- Eskola profesionaleko hizkuntza departamentu bezala sortu zen 1973an, 300 bat ikaslerekin. Urtetik urtera ikasle kopurua gorantz zihoala ikusita, handik hamar bat urtera, kooperatiba independente bihurtzea erabaki zen. Gaur egun 2.400 ikasle inguru ditugu, adin guztietakoak. Eman den aldaketarik garrantzitsuena, nik uste, zentrua zentzu guztietan aberastu izana da, bai material aldetik, bai baliabide aldetik. Irakasle prestakuntza ere askoz hobea da, hainbat ikastaro baitaude horretarako eta urtero izaten ditugu kurtsoa hasi aurretik. Beti ere aurrerapausuak ematen saiatzen gara, gaur egungo gizartearen beharrak kontutan harturik.

**- Gaur egun zertan ari zarete?**

- Multimedia sistema berritzaileaz gain, ohizko klaseak ematen ditugu gramatika, entzumena, idazmena, irakurmena eta mintzamina landuz; beti ere metodologia berriak erabiliz. Gure helburu nagusia komunikazioa da eta

**“Hizkuntzak  
jakitea  
garrantzitsua da  
baina beti ere  
gurea alde  
batera utzi  
gabe”**

hortantxe saiatzen gara eguneroko klaseetan. Horretaz gain, zerbitzu kooperatiba bat izanik, beste arlo batzuk ere lantzen ditugu, hain zuzen ere, itzulpengintza eta irakasleen formakuntza hizkuntzetan.

**- Zer da multimedia sistema?**

- Hizkuntza ordenagailu bidez ikastean datza. Astean laupabost ordu-tan, gramatika ordenagailuz ikasten du ikasleak eta era berean, astean ordu-beteko mintza praktika klasea izaten da taldeka. Sistema berri hau oso arrakastatsua izaten ari da, ikasleari

askatasun handia ematen baitio. Ikasleak, berak, aukera dezake ordutegia eta baita lan erritmoa ere. Batez ere enpresetako jendea baliatzen da sistema honetaz.

**- Zein hizkuntza erakusten dira?**

- Ingelesa, frantsesa, alemana, italiara, gaztelera atzerritarrentzat eta euskara, azken hau multimedia sistema bidez bakarrik. Betidanik ingelesa izan da arrakastatsuen, nahiz eta azken urte hauetan alemana goraka dihoan.

**- Eskaerak gora egin al du 25 urte hauetan?**


- Gure ikasle kopurua kon-tuan hartuta, zalantzarik gabe goraka egin du. Gero eta gehiago dira kurtso espezifikoak eskatzen dituzten bezeroak, esaterako, bilerak aurkezpenak egiteko, telefonoz hitz egiteko edo eta manualak eta instrukzioak ulertzeko.

**- Gaur egungo gizartearen hizkuntzak jakitea ezinbestekoa da?**

- Nik uste baietz. Harreman internazionalak zentzu guztietan oso zabal-duta daude, bai ekonomi eta bai politika mailan ere. Bidaiatu ere gero eta gehiago egiten da. Hizkuntzak jakitea garrantzitsua da beste kultura batzuekin komunikazioa lortzeko, baina beti ere gurea alde batera utzi gabe.

**- Nola ospatuko duzue 25. urteurren hau?**

- Hainbat ekintza antolatu dira. Martxoan, Amaia Antzokian, antzez-len bat aurkeztu zen antzerki talde ingelez baten eskutik. Apirilaren 17an “ate irekiak” eguna egin zen, bertako ikasleen familiei zentrua erakusteko. Jendea txundituta geratu zen bertako ikasgelak, mediateka, multimedia eta itzulpen gela ikustean. Maiatzean, berriz, kompetentzia interkulturalari buruzko hitzaldia egongo da. Azkenik maiatzaren 22an CIM eguna antolatu-ko da Arrasateko kiroldegian. Hainbat ekintza egongo da egunean zehar. Ikasturtean zehar, berriz, filme emana-ldiak egongo dira gure egoitzan.



## Etxebizitza... Atxabaltan

**“Orain zer egin du Udalak? Batetik, ez du jarduera berrietarako lurzorurik eskuratu eta bestetik zuen apurra promotore pribatuen esku utzi du”**

Gure herrian etxebizitzaren inguruan dugun dinamika Hego Euskal Herriko gainerako herrietakoaren antzekoa da; baina, ezberdina izan liteke. Lehenik eta behin, historiaren azken urteak erreparatu beharko liriateke, egoera kokatu eta irtenbideak aztertzeke. Uztarri eta gezietatik babestuta zegoen etxebizitzaren ondoren, 60ko hamarkadan hirigintzak izan zuen “boom”ean, etxebizitzaren eraikuntza bertako promotoreen eskutan izan zen eta prezioen gorakada epe luzerako hipoteken bidez konpontzen zen, digitu biko inflazioak lagunduta. Hurrengo hamarkadan, berriz, 80ko hasierako urteetan piztu zen krisialdira arte, etxebizitza-beharrak beste era batera konpondu zen: promotore pribatuen (etxebizitza askea) eta kooperatiben (babes ofizialeko etxebizitza) arteko jarduera mistoaren bidez eta etxebizitza sozialaren (Otalora) testigantza-jardueraren bidez.

Baina laurogeiko hamarkadaren erdialdera, libre zegoen lurzoruaren promotoreen eskutan geratu zen eta horiek merkatuan bi batera ez egoteko moduan antolatu zuten eskaintza; ondorioz, prezioak beraiek nahi bezala ibili

ziren. Horren aurrean, Udalak beste ekimen batzuk bultzatu behar izan zituen, San Migelekoa eta gero Ibarakoa esate baterako. Ekimen horiek eztabaidagarriak izango dira ziurrenez; baina, behinik behin, 4 edo 5 urtetan prezioen igoera bizia txikitzeke balio izan zuten.

Etapak hori bukatu da, eta orain zer egin du Udalak? Batetik, ez du jarduera berrietarako lurzorurik eskuratu eta bestetik, zuen apurra promotore pribatuen esku utzi du. Azkenik, Hirigintza Arauen Berrikuspena, lurzoru publikoa sortzeko eta horrela bertako etxebizitzaren merkatua orekatzeko tresna izan zitekeena, ondorengo honetara baino ez da mugatu: industri lurzoruari kalifikazioa aldatzera bizitegi-zoru hiritarra bihur dadin eta Debaren ezker aldean Lausitatik Portasoleraino gune bat sortzera, dena esku pribatuetan utzita. Herriak hirigintzarekin sortzen dituen plusbalioen zati bat, behintzat, herriarentzat izan beharko litzateke. Eta administrazioaren eskutan dagoen lurzoruaren bidez bakarrik ezar daitezke merkatua orekatuko duten etxebizitza-politikak.

Miguel Angel Delgado

**ERREKABARREN  
MEREKATAL ZENTRUA**

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

# 91 urteko bizitza luzea

Sarritan geroko uzten diren lanak bukatu gabe geratzen dira eta horixe gertatu zaigu Juan Arregikin. Joateko, joateko... baina ez ginen iritsi. 91 urte izan arren betiko izango zelakoan geunden eta azkenean egun bate-tik bestera joan da, zaratarik atera gabe.

Euskal Herriko jenderik garrantzitsuenen eskuetatik hainbat sari eta aipamen ugari jaso dituen atxabaltar honi buruz, zer esan daiteke? Hona hemen gure omenaldi apala.

Beste edozein herritakoa izan zitekeen, baina Aretxabaletan jaiotzea tokatu zitzaion eta ez zen bere herriaz inoiz ahaztu. 28 urterekin etxetik alde egin eta eta bere bizitzako momenturik garrantzitsuenak Gasteizen bizi izan zituen: negozio eta enpresen arrakasta, safariak egiteko ahalmena, Alaves futbol taldearen pozak... eta baita txarrak ere: emazte eta seme bakarraren heriotza, Alavesaren larrialdiak...

## LANGILE FINA

Lorentxo Arregi eta Maria Garrairen hirugarren semea, Malkorre baserrian jaio zen 1907an. Batuketak eta biderketak egiten ikasi bezain laster ajustadore eta trokelista lanetan ibili zen. Hamazazpi urtekin, berriz, jadanik lantegiko arduradun izendatu zuten. 13 anai-


arreba izanda eta 18 lagun bizita Malkorren, etxea txiki gelditu eta 28 urterekin, Araba aldera alde egin zuen.

**Ez bakarrik enpresak, sariak ere barra-barra heldu zitzaizkion**

## ENPRESARI SENA

500 pezeta poltsikoan eta kotxe

bat besterik ez zituen eraman Gasteizera. Ez zuen beste ezer behar izan, enpresari sena barruan zera-malako. Enpresa batek beste bat ekarri zuen, Araban, Gipuzkoan, eta atzerrian Frantzian, Ingalaterran, Venezuelan... sakabana-tutako enpresa multzoa izan arte. Ez bakarrik enpresak, sariak ere barra-barra heldu zitzaizkion: 1992an Euskal Herriko enpresari onenari saria eman zioten, 1993an Euskal-Telebistak urteko enpresari onena izendatu zuen, 1997an Eusko Jurlaritzak ematen duen "Lan Onari" izendapena jaso zuen Ardanza lehendakariaren eskutik, ondoren Lanaren Merituari Domina etorri zen... eta horrela beste hainbat izendapen eta sari.




18 lagun bizi izan ziren Markole baserria txiki geratu zitzaion Juan Arregiri

90 urte beteta izan arren, ez zion negozioak egiteari utzi eta azken aldian ostalaritzako negozioetan sartuta zebilen Castelló aldean. Iaz, esaterako, Castellóko Xilxes herrian hotel berri bat inauratu zuen.

Gizon gutxi utziko du mundu hau bere ametsak egi bihurtuta, baina Juan Arregi edo Don Juan, Gasteizen esaten zioten bezala, horietako bat izan da. Bere amets bat arabako egunkari bat ezagutzea zen, eta baita lortu ere. "El Periódico de Alava"ko bazkide sortzailea izan zen eta ondoren Ohorezko Lehendakari izendatu zuten.

## EHIZARAKO ZALETASUNA

Negozio gizonak, sarritan, diru asko irabazi bai baina diru horrekin gozatzeko asti gutxi izan ohi dute. Juani ez zitzaion hori gertatu, ehiza gustatu eta behar zen lekura joaten zen animaliarik ikusgarrienak ehizatzen. Afrika-ko sabanako lehoi, hipopotamo, jirafa, elefante (ehundik gora ehizatu omen zitue), poloetako hartza... Ez bakarrik ehizatu, ondoren gorde egiten zituen. Bere Gas-



Erakusketa bikaina zeukan antolatuta lantegian berak ehizatutako animaliekin

## 1924an Alaveseko bazkide egin zen eta geroztik erabat lotuta geratu ziren Juanen eta talde honen bizitzak

teizko lantegian, edozein aho zabalik uzteko moduko bilduma ikusgarria osatua zuen.

## ALAVESEKO JARRAITZAILE AMORRATUA

Bigarren ametsa Alaves futbol taldea 1. mailan ikustea zen, eta baita hau ere lortu. 1924an bertako bazkide egin zen eta geroztik erabat lotuta geratu ziren Juanen eta talde honen bizitzak. Bizikletan egiten zituen Gasteizerako joan etorriak garai hartan.

56-57 denboraldian izan zen lehenengo aldiz Alaves taldeko lehendakari, ondoren beste hiru aldiz hartu zuen taldearen gidaritzak 74-75, 86-87 eta 89-90 denboraldietan. Denak ez ziren garai errezak izan, hirugarren mailan egotea ere tokatu zitzaion eta. Juan, ordea, ez zen kikildu, behar zen lekuetan laguntza eskatu eta taldea beti aurrera ateratzea lortu zuen.

1997an izandako bihotzeko ebakuntza baten ostean, medikuek lehendakari lana uzteko gomendatu zioten. 1998ko maiatzean eman zion agurra taldeari zera esanaz, "Alavesa 1. mailan utzi nahi nuen eta lortu dut, lortu dugu". Ohorezko Lehendakari izendatu zuten

*Herriko talde eta elkarte askori lagundu zigun Juanek. Diru laguntzak Udalak, Abesbatzak, UDAk, Basotxoko jubilatuek, Loramendi ikastolak... jaso zituzten. Oraindik gogoan dut Loramendi ikastola gurasoak sortu nahian zebiltzala, nola utzi zien berak sortzeko dirua. Kobratzeko garaia etorri zenean, berriz, maileguaren paperak hartu eta jendearen aurrean apurtu egin zituen, horrela zorra barkatuta geratuaz. Oso gizon atsegina zen, berriketa zalea eta kontu kontalaria. Oso maila apaletik hasi eta gora igotakoa. Horrek pertsona berezia egin zuen. Berak zioenez han eta hemen banatutako bere hogei bat enpresetako langileek, ez zuten inoiz grebarik egin. Azken aldian ostalaritzako negozioetan sartuta zebilen eta Castellóko Xilxes herrian zuen hotelarekin oso ilusionatuta ikusi genuen bere azken urtebetzea ospatzen han izan ginena.*

*Karmelo Olabe*



UDAREN 50. urteurrenean izan zen azkenengo aldiz Aretxabaletan Juan. Uratz Alde Elkartean bazkaldu eta ondoren ohorezko sakea egin zuen domekako partiduan

orduan.

#### ARETXABALETA BETI GOGOAN

Aspaldi urrundu bazen ere Aretxabaletatik hemengo paraje, kontu eta lagunak beti gogoan izan zituen. Bere lagun kutunena ere hementxe zuen, Juan Jose Arenaza, Atxurdin, orain urte pare bat hil zena.

1989 inguruan, Juan Ignacio Zubiari, lagun kuadrila bezala Jua-

nen urtebetetzea ospatzera joatea bururatu zitzaion. Familiarekin, Arabako Villabuena herrian ospatzen ari zen tokira joan eta zorionak abestu zioten bertan. Ospakizun hartan sortu omen zen omenaldia egiteko ideia, udaletxeari proposatu eta 1990ean egin zitzaion. Meza eta bazkaria egin ziren eta udaletxeak urrezko domina ezarri zion. Omenaldi hartan



pisu haundiena Aretxabaletako Abesbatzak eraman zuen eta handik aurrera Juanek eskatuta urtero urtero joan ziren bere urtebetzean, azaroaren 24an, abestera. Karmelo Olabek, Abesbatzako lehendakariak, zera dio "Udaletxeak egindako omenaldi honen ostean, urte pare batera, Abesbatzak urrezko domina ezarri zion eta Ohorezko Bazkide izendatu

*Ezagutu, mutikotatik ezagutzen nuen Juan, bizikletan ibiltzea gustatzen zitzaion eta berak zioenez inguru honetan ez zegoen irabaziko zionik. Berarekin harremanetan, ordea, Alavesera jokatzera joan nintzenez jarri nintzen, 1952. urtean. Orduan oraindik ez zen futbol taldeko lehendakaria, baina bai jarraitzaile amorratua eta bere bitartez eraman ninduten UDAtik Alavesera. Ondoren beti egon izan dira bi futbol talde hauen artean harremanak. Tito Arkauz UDAko lehendakari zela eta ni neu entrenatzaile Alaveseko jokalaria bat utzi zigun urte osoan UDAn jokatzeko. Jokalari honen gastu guztiez gainera, bera egin zen kargu. Aretxabaletan azkenengo aldiz UDAREN 50. urteurrenean egon zen, orain hiru urte. Omenaldi txiki bat egin genion eta taldeko urrezko insignia jarri zitzaion. Berak, bestalde, dirulaguntza eman zuen urteurren honen ospakizunerako.*

*Gaztetatik Gasteiz aldera joan arren Juan atxabaltarra zen eta horrelaxe esaten zuen berak ere, aukera zuen guztietan. Atxabaltako jendeaz askotan gogoratzen zen, bere garaikoez batez ere, eta kontu zaharrak kontatzea izugarri gustatzen zitzaion. Oso gizon atsegina zen.*

Bixente Etxeandia

genuen". Iaz, bere azkenengo urtebetetzean, Castellóko Xilxes herrian zuen Simba hotelean izan ziren abesbatzako kideak bere urtebetetzea ospatzen. Azkenengo zorionak entzun zuen bertan, Juanek, atxabaltarren eskutik.

Ez zen izan ikaratsen den gizon horietakoa. Ezagutu zutenek badakite bizitzari zuzen begiratzeko ziola, begirada jeitsi gabe, beti aurrera eginez eta horrelaxe heldu zen 91 urte izatera. Bapatean harrapatu zuen heriotzak pasa den apirilaren 20an, Madrilen, behar bada bazekielako horrela izan ezean ez zegoela bera mundu honetatik eramaterik.

# Barkero munduko txapeldun

**Apirilaren 27an bere urtebetetzea ospatzeko bi arrazoi izan zituen Jose Javier Barkerok**

Munduko txapelketa polita jokatu ondoren, urrezko kopaz itzuli dira etxera Jose Javier Barkero eta Espainiar estatuko 20 urtez azpiko selekzioa. Finalean Japoniarren aurka 4 goleko aldeaz nagusitu ziren eta horietako gol bat Barkerorena izan zen. Horrez gain, beste penalti bat ere sartu zuen atxabaltarrak txapelketan zehar.

Jokalariek bero izugarriak pasa behar izan dituzte Nigeria aldean, 40° eta 45° gradu egiten zituen batez beste eta. Horri %90eko hezetasuna gehitu behar zaio. Gainera, Barkerok, beroa ez du oso lagun eta beldurrez joan zen hara. Dena dela, oraingo honetan, ez dio itxura baten behintzat, kalte handirik egin eta joko bikaina erakutsi du txapelketan zehar. Esperientzia berri honek bere futboleko ibilbidean gorantz igotzen lagunduko

diola ziur gaude.

## Nigeriako pobrezia

Garaipenaz gain, Barkerok, Nigerian bizitako esperientziatik, bertan ikusitako pobrezia nabarmendu du. Egia esan, hotolean egon dira denbora guztian eta estadiora joateko bakarrik irten dute. Dena dela, hau nahikoa izan da bertako miseriaren eta bertako jendeak bizi duen pobrezia egoeraz jabetzeko.

## Zorionak emateko bi arrazoi

Joan den asteartean, apirilak 27, 20 urte bete zituen Barkerok. Be-



Jose Javier Barkero

raz, bere urtebetetzea ospatzeko aurten arrazoi bikoitza izan du. Zorionak gure partetik! Berak, zein bere familiakoek, ziur gaude ondo ospatu zituztela. Gainera, maiatzaren 10era bitartean, ondo merezitako opor egun batzuk izango ditu.



## Piraguismoan federatzeko deia

Murrukixok 99 urte honetarako piraguismoan federatzeko epea zabaldu du. Aurtengo kuota, gainera, iazkoa baino merkeagoa izango da, 2.500 pezetakoa. Federatu nahi duenak Murrukixoko lokaletik pasa beharko

du, martizenetan 7,30etatik 8,30etara. Federatzen direnek Murrukixoko piragua ekipoa erabiltzeko aukera izango dute eta jakin, gainera, aurten materiala berritzeko asmoa dagoela. Oier Aranzabal piraguismo arduradunaren esanetan, Murrukixotik irteerak antolatzeke asmoa dago, bai itsasora eta bai Pirineotako erreketara.

**IBARRA**  
ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

**REGIANDO**

**optika**

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

*Okindegia - Gozolegia*

*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

# Otala-zelaiko krosa Iker Sanzen omenez

**Beteranoek Urkuluko urtegiari bi buelta eman beharko diote aurten bakarria beharrean**



Gazteen probak goizeko 10etan hasiko dira eta proba nagusia 11etan

Urkuluk korrikalari ugari batuko ditu datorren maiatzaren 9an Otala-zelaiko krosa dela eta. Goizean-goizetik gaztetzoen txanda izango da. Benjamin, alebin eta infantilen probak, goizeko 10etatik aurrera egingo dira.

Ondoren goizeko 11etan nagusien proba hasiko da. Lasterketa horretako partaideen sailkapenak desber-

dintasan bat izango du aurreko urtekin konparatuz. Izan ere, orain artean beteranoek buelta bakarria ematen zioten urtegiari eta aurten bi eman beharko dituzte. Aldaketa hau, Asier Mujikak adierazi digunez, aurreko urteetan beteranoetan maila haundia ikusi delako egin da.

Gainontzeko taldeen sailkapena, hauxe izango da: alde batetik

emakumeen absolutua eta bestetik gazakumeak. Azken hauek, junior, senior eta beteranoetan banatuko dira. Seniorrek eta beteranoek bi buelta eman beharko dizkiote urtegiari. Gainontzekoek, berriz, bakarria.

## Iker Sanzen omenez

Iaz Iker Sanzek Otala-zelaiko krosean hartu zuen parte eta lehen atxabaltarra izan zen gainera juniorretan. Hori dela eta, aurten maila horretan banatuko den saria bere omenez izango da.

Guztira 160.000 pezeta banatuko dira saritan eta garaikurra ere emango zaio kategoria bakoitzeko azkarrenari. Gainera, partehartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute.

Iaztik Kamel Zianik 40'29"tan duen errekorra gaintzen duenarentzat, 25.000 ptako saria izango da.

## Izen ematea

Partaideek, goizeko 9,30 eta 10,30ak bitartean izena eman beharko dute Urkuluko urtegiari proba hasten den inguruan. Aurten ez da alde aurretik apuntatzeko aukerarik egongo.

## Errasti anaiak Deba arroko garaile

Joan den asteburuan Deba arroko garaile atera ziren Unai eta Ibon Errasti, Etxabe-Bengoetxea bikote eibartarraren aurka nagusitu ondoren. Partidua Eibarko Astelehena pilotalekuan jokatu zen eta etxekoek 6 eta 22 galdu zuten. Bestalde, jubenetan Aitor Alzola eta Asier Erañak ez zuten zorte bera izan. Atxabaltako bikoteak Antzuolako Lasa eta Pas-trainen aurka jokatu zuen, 22-13 galduz.

Txapelketa hauen ostean Herri arteko txapelketa izango dute aurrez-aurre Atxabaltako pelotariak.

## Pala txapelketan finala gertu

Datorren domekan pala txapelketako finala jokatu da kirol-etxean, 3. eta 4. postuekin batera. Azken honetan, Jon Alberdi eta Iñigo Agirrebeña bikote bergarrak, Roberto Agirre eta Mikel Uribetxebarria izango ditu aurrez-aurre goizeko 10etatik aurrera. Finala, berriz, goizeko 11etan hasiko da eta Rodolfo Rico eta Juanma Martinez ermurrak eta Edorta Antxia eta Gorka Madinabeitia izango dira lehian. Eskupilotan, final laurdenak jokatu dira zapatu goizean Iturrigorri frontoian.

## Sastre erlojuz kontrakoan garaile

Iban Sastrek, Saunier Duval taldeko txirrindulariak, etapa bat irabazi eta laugarren postuan bukatu zuen Arabako Itzulian. Elite eta 23 urtez azpiko txirrindulariei zuzendutako proba horretan Iban Sastrek erlojuz kontrako proba irabazi zuen. Azken honen ibilbidea etxetik gertu izan zen, Aramaixotik Legutio bitartean hain zuten. Saunier Duval taldeko txirrindularia ondo defenditu zen Aramaixotik Kurtzetara bitarteko igoeran eta baita bigarrenari 22 segunduko aldea atera ere.

# Segurako irteera

Loramendi Euskara Elkarteak Segurara irteera antolatu zuen apirilaren 17an

Duela astebete Loramendi euskara elkarteak, herriko zenbait gazterekin batera Diputazioak Seguran duen Aterpetxean asteburu pasa antolatu zuen. Asteburu honen helburua bikoitza zen. Batetik, ongi pasatzea, eta, bestetik, Aretxabaletako euskararen orainari eta etorkizunari buruzko hausnarketa eragitea. Era berean, Aretxabaletako kultur eskaintzen inguruan balorazio bat eginen. Asteburuko egitaraua ondorengo hau izan zen:

Zapatu goizean Jose Angel Iriagaraik Bilbo-ko kafe antzokiaren filosofia-aren testigantza eskaini zigun. Esan behar dugu saio hau motz geratu zitzaigula, galdera asko eta asko geratu baitziren airean, denbora faltagatik. Bazkal ondoran, arestian aipa-



Giro ezin hobea egon zen Seguran bildu ziren gazteen artean

tutako gaien lanketa, lan talde ezberdinetan banaturik eta azkenik, domeka goizean lan taldeetan ladutako gaien bateratzea eta ondorioak ateratzea.

Esan, asteburu osoan giro ezin hobea bizi izan genuela eta giro honen ondorio izan zirela ondoren aipatuko ditugun Aretxabaletako kultur egoerari buruzko iritzi hauek. Hauek dira etorkizunean ditugun erronkak.

- Aretxabaletako euskararen egoerak hobera egin badu ere oraindik asko dira lantzeko geratzen diren esparruak (osasungintza, merkataritza, lan mundua...), eta hauekin lanean jarraitzea ezinbestekoa ikusten da.
- Kezka nabaria agertu zen hizkuntz kalitatearen inguruan.
- Euskara elkarteek etorkizunean integrazioaren bidea jorratu behar dutela modu erakargarri eta ludiko batean, izan ere 21 urtez azpiko gazte guztiek baitute euskararen ezagutza. Ondorioz, egungo bereizketa haundiena euskal hiztun edo erdal hiztunen artean egongo litzateke. Beraz, erdal hiztun horiek erakartzeko gaitasuna erakutsi behar dugu.
- Aretxabaletako kultur taldeak beharrezkoak jotzen diren unetik taldekeria gainditu eta taldetasuna bultzatzeko gaitasuna erakutsi behar dute, gazte jendea erakarriko duen proiektu berritzaileak eskainiaz.
- Elkarteak autoberritzeko beharra, proiektu berri eta jende berrien bidez.
- Elkarteek jendearen interesak detektatzeko gaitasuna erakutsi behar dute eta euren laguntza eskaini interes horiek aurrera egin dezaten.
- Gazteek espazio propio baten beharra somatzen dute (gaztetxea).
- Kuadrilen arteko komunikazio guneak sortzearen beharra.

Bukatzeko, Segurara hurbildu zineten guztiei eta hurbildu ez zineten zenbaiti ere gure eskerrik beroena luzatzen dizuegu, zuoi esker asteburu giro ezin hobean pasa ahal izan genuelako. Zinez, esker mila.

**Loramendi  
Euskara  
Elkartea**

**BEIRALAN**



- ✦ Komunerako altzari eta manparak
- ✦ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ✦ Beirate artistikoak
- ✦ Salarako mahaiak

**KRISTALDEGIA** Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

**“ARINSA”**

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tfnua: 943 79 62 80  
ARETXABALETA





## Udaberriko futbol txapelketa

Argazkia 1955 urte inguruan ateratakoa da, Ibarrako futbol-zelai zaharrean. Atzean ikusten den baserria, berriz, Markole da. Adin ezberdinetako mutikoak elkartu eta herriko kuadrilen artean txapelketak antolatzen zituzten garai hartan, udaberriko futbol txapelketa esaterako. Bakoitzak bere erropa eta oinetakoak ekarri alpargata, zapatila, abarka... ahal zena eta UDAK gainekoa uzten zien, alkondara urdina marra zuriarekin. Urte batzuk pasa dira ordutik eta batzuei orduko kontuak ahaztu arren, beste batzuk ondo gogoan dituzte, ez zen nolanhiko garaia izango eta.

Goian, ezkerretik hasita: **Juan Antonio Iturbe, Luis Mari Otxoa, Iñaki Galdos, Jose Luis Elkoro, Jesus Mari Andres, Ramon Mari Elkoro, Saturnino Diaz de Gereñu.**

Behean, ezkerretik hasita: **Juan Ramon Zubia, Luis Eraña, Kepa Akizu, Luis del Teso.**

Argazkia: *Ramon Mari Elkoro*

Informazioa: *Juan Ramon Zubia*

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKLU**  
URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**Etxabe**  
**harategia**

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57

## LANA

◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86

◆ Matematika, fisika, kimika eta marrazketako **klaseak ematen** dira Arrasateko San Andres auzoan. Tfnoa: 943 77 08 02

◆ Aretxabaletan 2. LOGSEko (giza-zientziak) matematikako **klaseak hartuko** lirateke. Tfnoa: 943 79 23 77

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Parkineko kobratzailea.** Deba Behea. Erref. 18370/3

**Estetiziena.** Goierri. Erref. 18212/4

**2 optiko.** Urola Kosta. Erref. 18646/2

**Mantenimendu burua.** Alsasua. Erref. 18199/2

**Zurgina.** Bilbo. Erref. 18669/7

◆ **Lan eskeintza publikoak.**

**Lekeitioko Udala. Udaltzainburua.**

Aurkezteko epea: 99/4/30  
Oinarriak: BAO 99/4/7

**Errenteriako Udala. Teknikari laguntzailea. 2 udaltzain. 2 operario.**

Aurkezteko epea: 99/4/30  
Oinarriak: GAO 99/3/22



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.**

**Nafarroako osasunbidea.**

- **Barne medikuntzako espezialista.**
- **Geriatrico espezialista.**
- Aurkezteko epea: 99/5/1
- Oinarriak: NAO 99/3/31
- **SOSEko 2 arduradun**
- **Neumofisiologiako espezialista.**
- **Dietetikako 2 espezialista.**
- **2 oftamologo.**
- **2 neurologiako espezialista.**
- **2 terapeuta.**
- **Hematologiako espezialista.**
- Aurkezteko epea: 99/5/7
- Oinarriak: NAO 99/4/7

## DENETIK

◆ **Pertsiar arrazako katutxo** meua salgai, txertatua eta bere kartilarekin. Tfnoa: 943 77 10 60

◆ **SS-AB matrikuladun Renault** supercinco zuria salgai, oso egoera onean. 943 79 68 75 telefono zenbakira deitu.

## ETXEBIZITZA

◆ **Lokal komertziala** salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.

◆ **Baserri zahar bat** erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.

◆ **Etxe bat erosi nahi** genuke Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 86 21.

◆ **Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. Tfnoa: 943 79 67 26

◆ **57 m2ko garajea salgai** Erreka-barren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73

## LEHIAKETAK

◆ **Sondikako jaietako XIII. kartel lehiaketa.** Sondikako Udaleko Kultura Arloak jaietako egitaraua eta kartela egiteko lehiaketa antolatu du. Kartelaren irudia librea izango da eta ondoko testua jarri beharko da: "Jon Deunaren jaiak 1.999-Sondika. Ekainak 18tik 24ra". 50x40 zm.-ko euskarri baten aurkeztu beharko da kartoi fin batez sendotuta. Lanak Sondikako udaletxean aurkeztu behar dira: Gorronda Gane Bidea, 1 Sondika. Kartelaren atzekaldean, lehiaketako lema idatziko da: Sondikako Jaietako XIII. Kartel Lehiaketa "Jon Deuna 1.999-Sondika". Beste kartazal baten, egilearen xehetasunak jarriko dira. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 7an bukatuko da eta sari banaketa maiatzaren 15ean egingo da.

Sariak: 1.: 50.000 pta. eta diploma.  
2.: 35.000 pta. eta diploma.  
3.: 15.000 pta. eta diploma.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

# CONSUM EROSKI

*Orain arrandegi eta okindegiak, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA

# Eztituta



Hamabostero bezala gaurkoan ere hementxe naukazue. Zuen jakin nahia asetzeko asmoz, belarriak tente jarri eta herriko kontuen berri emateko prest. Batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago baina atxabaltarrok beti dabilkigu konturen bat eskuartean. Eskerrak, bestela nik neuk osatzen dudan tarte pribilejiatu honek ez luke zentzurik. Hariari tiraka ibili beharrean, azkenengo momentuko kontuei helduko diet.

Txirrindularitza mundutik berriro ere albiste pozgarri bat dakart. **Iban Sastrek** Arabako Itzulian, eliteko eta hogeitahiru urtez azpiko txirrindularien artean laugarren postua eskuratu zuen. Albiste pozgarriak ematen dizkigu Sastrek, hamabostero dakartza eta atxabaltarrantzat berri onak.


**UDAko** jubenilek ere, partidu baten faltan, "Liga Vasca"ko mailan mantentzea lortu dute. Beraz, zorionak jokalaria eta zaletu guztioi.

Pala kontuan ere, atxabaltar batzuk gogor dabiliz. Domeka goizean jokatuko dira kiroldegian pala txapelketako finala eta 3. eta 4. postuak. Finalan, **Rodolfo Rico** eta **Juanma Martinez** ermuarrak, **Edorta Antxia** eta **Gorka Madinabeitia** atxabaltarren aurka arituko dira. Atxabaltarren entrenamenduek fruiturik emango al die? egin apustuak. Nik bertakoen alde egingo dut apustu. Bestela...

Datorren apirilaren 29an **Kepa Urrak** epailearen aurrean testifikatu behar du Madrilan. Egun berean, Kepak, medikuarendako txanda dauka Gasteizen. Beraz, medikuarengana joan gabe gelditu beharko da. Beti berdin gertatzea ere...

Kantu kontuei helduaz, esan **Kultur Errotaren** eskutik, pasa den domekan **Amaia Zubiria** eta bere semearen emanaldiaz gozatzeko aukera izan genuela udaletxe zaharrean. Bertan izan zirenak, Amaiaren ahots eztiak jabetzeko aukera paregabea izan zuten. Nik, neuk, ezti pixka baten beharra daukat, horrenbeste konturen berri emateak ez-tarria lakartuta utzi baitit. Ezti potoaren bila noa. Datorren hamabostaldian kontu eztiagoekin agertuko naiz.

## Liburutegiko txokoa



### Masai Txikia

Patricia Geis

Ttarttalo, 1999

Munduko neskak eta mutilak; 2

**M**asai txikia etxean geratu da bakarrik, baina Maspertuta dagoenez paseo bat ematera aterako da. Halako batean jostun ilegorri batekin egingo du topo eta honek galdetuko dio ea elefanterik ikusi duen. Masai txikiak elefanteari abisatuko dio; baita errinozeroari eta krokodiloari ere, baina gero galdu egingo da eta jirafaren laguntza beharko du etxera bueltatzeko.

Bilduma honetan herri ezberdinetako haurrak aurkezten zaizkigu ipuin batean eta beren bizimodua azalduz aldi berean. Bilduma berean Sioux txikia, Nenet txikia eta Maori txikia ere aurkituko dituzue. Ipuinaren amaieran herri hori non dagoen eta zein bizimodu duten azaltzen da labur-labur.

6 urtetik aurrerako haurrentzat gomendagarria.

Joseba Lopez de Armentia

APIRILA

MAIATZA

9

30

7

domeka

egukotxa

egukotxa

**ANTZERKIA**

Udaleko Kultura sailak hilaren 23rako antolatutako antzerki saioa egukotx honetan egingo du Kukubiltxo taldeak. **“Arrosako zuzbia”** lan berria estreinatuko du Kurtzebarri eskolako aretoan arratsaldeko 5,30etan.

**ANTZERKIA ARRASATEN**

Arrasateko Amaia antzokian “No hay huevos” antzezlanaren eskeiniko du Sobradun taldeak. Gaueko 10,30etan izango da eta sarrera 1.000 pta, gazte txartelarekin, berriz, 800 pta.

**DESFILEA**

Almeneko 1. G.B. koek udaberri-udako jantzi berriak erakutsiko dituzte Zاراia zineman arratsaldeko 6,30etan. Helburua datorren urteko bidaiarako dirua biltzea da.

**URKULUKO KROSA**

Aurtengo Urkuluko Krosean Iker Sanz atxabaltarra omenduko da. Goizeko 10etan, benjamin, alebin eta infantilen probak izango dira eta 11etan nagusia. Izena goizeko 9,30etatik 10,30ak bitartean eman beharko da Urkuluko urte-gian.

**OSASUN PASTORALTZAREN SENTSIBILIZAZIO ASTEA**

**Maiatzak**

• 3, astelehena 5etan  
“Baloreak eta jarrerak. Osasun pastoraltzako emakumeen erakarpena”

Hizlaria: M<sup>a</sup> Jesus Goikoetxea.  
*Bioetikan aditua.*

• 4, martizena 5etan  
“Pastoraltzako motibazioei buruzko gogoetak”  
Hizlaria: Tomasa Zabaleta. *Bergarako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarte*ko Lehendakaria.

• 5, eguaztena 5etan  
“Kultura, aisia eta partehartze soziala”. Nagusilan-RSVP

proiektuaren aurkezpena.

Hizlariak: Juan Ma. Garitano eta Javier Aranguren.

Hitzaldi hauek Basotxoko aretoan izango dira.

• 8, zapatua 10etan  
“Eliz eredu berria, osasunaren pastoraltzaren arloan”  
Hizlaria: Jose Antonio Pagola. *Donostiako Elizbarrutiko Bikario Nagusia.*

Hitzaldi hau Azatzako Abade Etxean izango da.

**Antolatzailea:** Aretxabaletako Parrokiako Osasun Pastoraltza

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa orokorrak**

Errekararren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

**Maritxu Mertzeria**

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

**Mobiliario ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Aldiabi**

943 71 20 02

*Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**ITURGINTZA**

**J.J**  
*Jose Jabier Irure*  
**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

14

egukotxa

## IKASTARROAK

### OINARRIZKO BIDEO IKASTAROA

Bergarako Islada Bideo Tailerrak oinarrizko bideo ikastaroa antolatatu du maiatzaren 31 eta uztailaren 1a bitartean. Astelehen astearte eta ostegunetan emango dira klaseak arratsaldeko 5etatik 8etara. Matrikula 8.000 pta. izango da eta langabetuentzat 4.000 pta.

### KULTUR ERROTA

#### Urbeltzekin dantza ganbara

izango da oraingoan kultur errota-ko ekitaldiaren barruan. Dantza talde honen ikuskizuna gaueko 10etan udaletxe zaharrean izango da.

15

zapatua

### EUSKARAREN EGUNA

Hurrengo alean programaren berri.

19

asteazkena

### ELKARRIREN MAHAINGURUA

“Eraikikasi” 1. atalaren “zer da bake prozesu bat erraztea?” adierazteko.



BEHARREZKO TELEFONOAK

### Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murruxio M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

### Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

### Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

### Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

## Telebistari laguntzeko lan taldea



Eguazten honetan bilera izan zen Atxabalta telebistan. Bilera honen helburua telebistako langileei laguntzeko lan taldea sortzea izan zen. Borondate oneko eta lanerako gertu dagoen jendea oraindik badago baina sarritan beste lan batzutan buru belarri dabilena. Beraz, batzor-

dekideek badakite ez dela erreza izango lan hau betetzeko konprometitu nahi duen jendea aurkitzea.

Hala ere lanerako gogoia duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte, telebista ezagutu eta proiektu berri honetan parte hartzera, batez ere telebistaren inguruko mundua ezagutzen badute. Giro ona ziurtatuta dago

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Goiaran erretegiko sukaldaria da Aitor Bengoia "Poli". Bi urte eta erdi darama bertan lanean, baina aurretik makina bat sukaldetan ibilitakoa da. Altsasuko "Basomutur" erretegiaren ikasi zituen sukaldeko sekretuak, horretaz gain beste hainbat sukaldari ikastaro ere egin izan ditu.

• **Betidanik gustatu izan zaizu sukaldaritzea?**

Sukaldea bera bai.

• **Noiztik zaude Goiaranen lanean?**

Bi urte eta erdi daramat gutxi-gorabehera.

• **Zein da sukaldari baten alde**

## "Jendea gustora uztea da nire lanean pozik haundiena ematen didana"

**txarrena eta onena?**

Alde txarrena edo zailena, behintzat, jantokia beteta dagoenean, denei ondo ematea eta onena, jendeak gustora gelditu dela esatea.

• **Etxean sukaldari lanak egiten dituzu?**

Bai, eta beste lan batzuk ere bai.

• **Zeintzuk dira egunik gogorrenak sukaldean?**

Astean zehar eguerdiak eta asteburuetan afalorduak.

• **Sukaldari izan ez bazina, zer izatea gustatuko litzaizuke?**

Errealeko jokalaria.

• **Zein da zure espezialitatea?**

Parrila.

• **Zuk zeuk zer eskatuko zenuke jateke batera joanez gero?**

Lehenengo plato bat eta bigarrenarako idi txuleta edo legatza.

• **Musika talde bateko partaidea izan zinen, nola gogoratzen dituzu urte haiek?**

Bai, Akulu taldean bateria jotzen nuen. Oso garai polita izan zen.

• **Zein musika mota gustatzen zaizu?**

Denetarik, punk-a, blus-a, rock & roll-a, hard core-a...

• **Ezkontuta hobeto, berdin ala**

**txarrago?**

Askoz ere hobeto, benetan.

• **Gaurkoan bizi ala biharkoan ere pentsatu?**

Gaurkoan bizi baina biharkoan apurtxo bat pentsatuz, bestela zoratu egin daiteke.

• **kapritxo bat?**

Musika.

• **Instrumenturik jotzen duzu?**

Gitarra eta bateria apur bat.

• **Bizitzeko lekurik politena?**

Aretxabaleta, Gipuzkoako herririk politena da.

• **Erdarazko ala euskarazko liburuak irakurtzen dituzu?**

Biak. Azken egunotan "La conjura de los necios" liburua bukatu berri dut.

• **Noiz bota duzu azken parranda?**

Aspaldi, orain ez naiz parrandazalea baina izan nintzen.

• **Bozkatuko duzu Udal Hauteskundetan?**

Bai.

• **Zer baloratzen duzu pertsonengan?**

Pertsona ona izatea.

• **Dirua izanda nora bidaiatuko zenuke?**

Uharte lasai batera.

## KOMIKIA

### BALINAKUK (Hikaz berbetan)

LIDABERRIXA  
ETORTZIAZ BAT  
JENTIA EZKONKETAN  
HASTEN DOK.

EZ HAZ  
ANIMETAN NOBIXIE  
TOPETAN ETA  
BIZI BERRI BAT  
HASTEN?

HEMEN  
GLIRE ETA EZIN  
DAUEN  
BESTE BAT.

NOBIXIA? ZERTARAKO?  
EDERTO NAK  
NALIEN MODLIAN.



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

# Zure oporretarako hamaika aukera eskaintzen dizugu

Zure oporrak behar bezala gozatu eta zure VISA txartelen aukera guztiak baliatu ditzazun, ondoko argibideak irakurtzea iradokitzen dizugu:

## • VISA SERVIRED GAZTEA

• VISA AFFINITY  
(Ikastolak-Partaide)

• VISA URREA

• VISA AFFINITY  
(Cáritas Euskadi)

• VISA AFFINITY  
(Medicus Mundi)

• VISA SERVIRED

• VISA CLASICA



- ▶ Gogoan izan zure VISA txartelekin saltoki eta kutzazain ugazirik osatutako sarea daukatzula eskuragarri, munitu osoan, zeure erostaketak ordaintzeko eta/edo dirua ateratzeko.
- ▶ Kreditu-txartelen bat baldin baduzu, zeure oporretara joan aurretik, kontsultatu zure sukurtsalean txartelak duen kreditu-muga.
- ▶ Servired txartela baldin baduzu, zeure kontuko saldoaren kontra eros dezakezu eta erabil ditzakezu kutzazainak.
- ▶ Txartela lapurtzen badizute edo galtzen bazaizu, salatu lehenbailehen Ekan edo VISA Españaren telefono hone-tan: 91 519 21 00.
- ▶ Erabil ezazu Telebanka txartela saldoak kontsultatzeko, intsuldatzeko... Ez baldin baduzu, eskatu zure sukurtsalean edo 901 333 444 telefonon.



# Orain

# TD*di*

auto fidagarri, seguru, dinamiko,  
berritzaile, zabal, jostagarri eta,  
nortasuneko bat nahi duzu.  
eta aurkitu duzula uste duzunean,  
focus agertzen da.

zeren eta zu zerbait  
**gehiagoren** bila baitzabiltza

ford**focus** berria

“Erabiltzaile eta  
Kontsumitzaileen  
Erakundeak (OCU), “crash  
test” delakoaren bitartez  
egindako ikerketaren  
arabera, Ford Focusek  
puntuaziorik altuena  
lortu du segurtasunean,  
beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko  
2.064. alean argitaratua

Audi A3 \*\*\*\*  
Ford Focus \*\*\*\*  
Mercedes Clase A \*\*\*\*  
Opel Astra \*\*\*\*  
Renault Mégane \*\*\*\*  
VW Golf \*\*\*\*  
Citroën Xsara \*\*\*  
Peugeot 306 \*\*\*  
Toyota Corolla \*\*\*  
Daewoo Lanos \*\*\*  
Honda Civic \*\*\*  
Fiat Brava \*\*  
Ford Scort \*\*  
Hyundai Accent \*\*  
Mitsubishi Lancer \*\*  
Nissan almera \*\*  
suzuki baleno \*\*



# Multi, Opción



zegoenarekin etsi beharrean zinenean, zerbait gehiago aurkitu duzu. gehiago, ford focus berriaren kanpo diseinua. eta barrukoa, zabalagoa, dena esku-eskura jartzen dizuna. gehiago, bai eta jokaera egonkor, zehatz eta zalu bai ere. bere 1.6ko (16v eta 100 ZP) aluminiozko motorrarekin, harritu egingo zaitu prestazioetan eta kontsumoan, eta gainera, gidariaren eta ondokoaren airbag-a dakarte guztiek. oraintxe ailegatu da ford**focus** berria, zure itxaropen-muga betiko aldatu duen autoa.

ford focus trend, 16v 100ZP, 2.000.000 pezeta (jendearentzako prezio gomendatua, llantak aparte)  
informazioa eta proba:

**Automóviles Mugarri**  
Araba Etorbidea, s/n  
ARRASATE-MONDRAGON  
Tel.: 943 79 75 64

